

ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUAREN ARAUDIA

HITZAURREA:

LEHEN TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikatzeko eremua
2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa eta helburua
3. artikulua. Jarduteko printzipioak
4. artikulua. Hartzaileak
5. artikulua. Sartzeko betekizun orokorrak
6. artikulua. Titulartasuna eta gobernu organoak

BIGARREN TITULUA: ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUA.

7. artikulua. Zerbitzuaren ezaugarriak
8. artikulua. Bateragarritasuna beste zerbitzu edo prestazioekin
9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak
10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak
11. artikulua. Profesionalen eskubideak
12. artikulua. Profesionalen betebeharrak

HIRUGARREN TITULUA: SARTZEKO, EGOTEKO ETA BAJA EMATEKO PROZEDURA

13. artikulua. Zerbitzura sartzeko eskaera
14. artikulua. Instrukzioa
15. artikulua. Ebazpena
16. artikulua. Erreklamazio prozedura
17. artikulua. Zerbitzuan onartzea eta egokitzeko aldia
18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa
19. artikulua. Zerbitzua etetea
20. artikulua. Zerbitzua amaitzea

LAUGARREN TITULUA: BARRUKO FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

21. artikulua. Funtzionamendu arau orokorrak
22. artikulua. Erabiltzaileen partaidetza bideak
23. artikulua. Zehapen araubidea

BOSGARREN TITULUA: ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua. Ostatu zerbitzuaren prezioa
25. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuari egindako ekarpena

XEDAPEN IRAGANKORRA

INDARGABETZEN DUEN XEDAPENA

AZKEN XEDAPENAK

HITZAURREA:

Getxok helduentzako tutoretzapeko apartamentuak ditu 1992tik. Horiek arautu ditu 2006ko azaroaren 24ko osoko bilkuran onartutako tutoretzapeko apartamentuen araudiak, 2006ko abenduaren 22ko BAOn argitaratutakoak.

Aipatutako erregelamendua indarrean sartu zenetik zenbait aldaketa gertatu dira bai legean bai erregelamenduan, eta aldaketa horiek udalek gizarte zerbitzuetan dituzten eskumenetan eragiten dute. Besteak beste, honako lege hauek aipatu daitezke: Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5koa; Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta Eusko Jaurlaritzaren 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legea garatzen duen 185/2015 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek 12/2008 Legean ezarritako eskumenen araubidearen arabera eman behar dituzten prestazio eta zerbitzuak definitzen ditu.

Era berean, 12/2008 Legeak, 22.1. artikuluan, 42.4. artikularekin lotuta, eguneko ostatu zerbitzuak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Udalen eskumena dela ezartzen du. Eta 185/2015 Dekretuaren I A) Eranskinean udalaren eskumena den adinekoentzako ostatu-zerbitzua honela definitzen da: egonaldi luze edo iraunkorreko ostatu zerbitzua, 65 urteko edo gehiagoko pertsonentzat, ofizialki I. graduko mendekotasun egoera aitortuta badute. Bi modalitate bereizten ditu: babespeko apartamentua edo etxebizitza komunitarioa.

Getxoko Bihotz Sakratuaren Udal Egoitzaren Artezkaritza Kontseiluak egoitzaren barne araubidearen erregelamendua 2017ko maiatzaren 23ko 15/2017 Erabakiaren bidez onartu zuen, eta BAOn argitaratu zen 2017ko uztailaren 28an. Erregelamendu horren barruan sartzeko komunitateko etxebizitza, Getxoko Bihotz Sakratua Udal Egoitzan eman beharreko zerbitzu moduan, baita haren araudia ere.

Komunitateko etxebizitzaren zerbitzu berria emateak eta hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorrora egokitzeko beharrak beharrezko bihurtzen dute adineko pertsonentzako ostatu zerbitzuaren bi modalitateen erregelamendua aldatzea eta bateratzea.

LEHEN TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikatzeko eremua

Erregelamendu honen helburua da sarrera era erabilera arautzea Getxoko udalerrian adineko pertsonentzako ostatu zerbitzuaren, Gizarte Zerbitzuen

Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoan jasotakoaren, bi modalitateak: tutoretzapeko apartamentuak eta komunitateko etxebizitza.

Zerbitzua Getxoko udal mugartean emango da, gizarte zerbitzuen arloan Udalak dituen eskuduntzen esparruan.

2. artikulua. Zerbitzuaren definizioa eta helburua

I. mailako mendekotasun egoeran dauden adineko pertsoneri epe luzeko ostatua edo ostatu iraunkorra emateko zerbitzu bat da, eta, salbuespenez, baita aldi baterakoa ere.

Laguntza maila txikia duen zerbitzua da, eta bertan langileak daude honako funtzio hauek betetzeko: tutoretza eta gainbegiratzea, bitartekaritza, laguntza soziala eta, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxekoa. Tutoretzapeko apartamentuen kasuan, langileak ez daude horiei atxikita.

Helburu hauek ditu:

- a) Erabiltzaileei komunitate esparruan egotea erraztea.
- b) Beren autonomia pertsonala hobetzea, mantentzea eta/edo autonomo izateko aukera ematen dieten abileziak eta gaitasuna narriatu daitezen saihestea.
- c) Isolamendu egoerak saihestea.
- d) Haien segurtasun sentimendua sustatzea.

3. artikulua. Jarduteko printzipioak

Ostatu zerbitzuaren bi modalitateek jarraitzen diete 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, jasotako printzipioei. Zehazki:

- a) Erantzukizun publikoa: ostatu zerbitzua soilik kudeaketa publiko zuzenaren bitartez ematen da.
- b) Unibertsaltasuna: sartzeko aukera ematen zaio horretarako betekizunak betetzen dituen pertsona orori.
- c) berdintasuna eta ekitatea: bermatzen da ostatu zerbitzuaren kudeaketa eta sarbidea ekitate irizpideei jarraituz ematen dela, norberaren inguruabar pertsonalekin edo sozialekin lotutako bazterkeriarik gabe.
- d) Gertutasuna: bermatzen da ostatu zerbitzua Getxoko udal mugartean barruan ematen dela, eta, horrela, erabiltzaileak beren komunitatearen inguruan gelditzen direla.
- e) Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa: ostatu zerbitzuaren helburua da erabiltzaileen autonomia pertsonala hobetzea, mantentzea eta/edo autonomo izateko aukera ematen dieten abileziak eta gaitasuna narriatu daitezen saihestea. Horrez gain, aukera ematen du

erabiltzaileen bizimodua ahal beste egokitzea beren esparru pertsonal, familiar eta sozialean garatutakora.

- f) Arreta pertsonalizatua eta integrala, eta arretaren jarraitutasuna: bakoitzaren egoeraren ebaluazio integralean oinarrituta dago, eta ostatu zerbitzuak arreta pertsonala bermatzen du, norberaren beharretara egokitutakoa, eta arretaren jarraitutasuna ere bai.
- g) Diziplina anitzeko esku hartzeak: esku hartze sozialaren esparruko ofizioen eta egokiak diren beste batzuen ekarpenak integratzen dituzte.
- h) Koordinazioa eta elkarlana: erabiltzaileen zaintzan zerikusia duten erakundeen artekoa beharrezko jarduketetarako, arretaren *continuuma* arrazteko.
- i) Herritarren partaidetza: erregelamendu honen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- j) Kalitatea: ostatu zerbitzua ematean gutxieneko kalitate estandar batzuk daudela bermatuta dago.

4. artikulua. Hartzaileak:

Mendekotasun egoeran dauden **(I. maila)** eta **65 urte edo gehiago dituzten pertsonak:**

- a) Erreferentziazko profesionalaren balorazioaren arabera, beste ostatu aukera bat behar dutenak, epe luzekoa edo iraunkorra, ez dutelako ostatu aukera egokirik, irisgarritasun eta/edo bizigarritasun baldintza egokiak dituenik; eta/edo bizikidetzara edo bakardade arazoak dituztenak (isolamendu soziala).
- b) Laguntzak behar dituzte, intentsitate txikikoak, komunitatean beren bizitza autonomorako aukera emango dieten harremanetarako gaitasunak mantentzeko edo garatzeko, eta, hala badagokie, eguneroko bizitzan jarduerak egiteko.

Elkarbizitza unitatea mantentzeko, honako hauek zerbitzura etor daitezke eskatzailearekin batera: haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea, ohiko elkarbizitza dutenak, eta, salbuespen modura, haren kargura dauden seme-alabak.

5. artikulua. Sartzeko betekizun orokorrak

- a) Eskaera aurkeztu den egunean 65 urte beteta izatea. Salbuespen modura, zerbitzura sartu ahal izango dira 60 urte edo gehiago dituztenak, gainerako baldintzak betetzen badituzte, erreferentziazko gizarte langilearen nahitaezko txostena badute eta haren koordinatzaileak oniritzia eman badu.
- b) Getxon erroldatuta egotea eta bertan edukitzea egiazko bizitokia, eskaera aurkeztu den egunaren aurreko 12 hilabeteetan, etenik gabe.
- c) Mendekotasunaren I. maila aitortuta edukitzea. Hura berrikusteko eskatuko da egoera okertuz gero, hobetuz gero, edo diagnosian erratu badira.
- d) Erreferentziazko gizarte langilearen txosten teknikoa eta haren koordinatzailearen oniritzia, zerbitzua erabiltzailearen beharretara egokitzen dela dioena.

- e) Laguntza sanitario espezializaturik edota iraunkorrik ez eskatzea, gizarte-zerbitzuen sarearen eskura ez badago.
- f) Jokabide nahasmendurik edota zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetza arrunta larriki eragotzi dezakeen portaerarik ez izatea, pertsonarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsua bada.
- g) Gaixotasun infektioso-kutsakor bat, gaixotasun mental bat edota adikzioen bati, dagokion tratamenduari uko ez egitea.

6. artikulua. Titulartasuna eta gobernu organoak

Bi modalitateetako zerbitzua emango den espazioen titulartasuna une oro Getxoko Udalarena izango da, eta erabiltzaileek ez dute horien gain inolako eskubiderik lortuko, erregelamendu honetan jasotakoak izan ezik.

Zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipena Getxoko Udalari dagozkio, gizarte zerbitzuen alorreko saila eta Udal Egoitzaren eskudunaren bitartez, erabiltzaileekin elkarlanean aritzeko mekanismoak ezarriko dira.

Zerbitzuaren arduraduna, Udalaren ordezkaria, gizarte zerbitzuetako profesionala izango da erabiltzaileentzat, eta, beste funtzio batzuez gain, zerbitzuaren jarraipena egiteaz eta ondo funtzionatzen duela bermatzeaz arduratuko da.

BIGARREN TITULUA: ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUA.

7. artikulua. Zerbitzuaren ezaugarriak

a) Tutoretzapeko apartamentuak: etxebizitza autonomoak, banakakoak eta/edo bikoitzak, beste ekipamendu sozial batzuen ondoko eraikin batean kokatuak. Gela bikoitz bat, egokitutako komun bat eta sukalde-egongela bat dituzte. Etxetresna elektrikoak eta altzari funtzionalak dituzte, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko.

b) Komunitateko etxebizitza: banakako gelak/gela bikoitzak, egokitutako komun bat eta egoteko espazio partekatua. Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egin ahal izateko oinarrizko ekipamendua du.

8. artikulua. Bateragarritasuna beste zerbitzu edo prestazioekin

Ostatu zerbitzuak beste zerbitzu edo prestazio batzuekin duen bateragarritasun eta bateraezintasun araubidea izango da 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, eta bertatik eratorritako arauzko garapenean aurreikusitakoa.

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Erabiltzaileen eskubideak, eskubide konstituzionalez eta legez aitortutakoez gain, 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, jasotakoak izango dira. Zehazki:

- a) Ostatu zerbitzura berdintasunez, duintasunez eta pribatutasunez sartzeko eskubidea.
- b) Norberaren datu pertsonalen inguruko konfidentziasunerako eskubidea eta profesionalak ezagututako informazioa gordetzekoa.
- c) Autonomia eskubidea. Autonomia eskubidetzat joko da norberaren bizitza pribatuari eta eguneroko jarduerak egiteko autonomia pertsonalari dagokionez modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea.
- d) Ostatu zerbitzuan sartzeko baimen libre eta espezifikoa emateko edo ukatzeko eskubidea.
- e) Norberaren eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko eskubidea, zehazki, etorkizuneko balizko desgaitasun egoeretan eman beharreko etorkizuneko laguntzaren eta zaintzen inguruko argibideak ematekoa eta autotutoretzaren eskubidea.
- f) Ostatu zerbitzuari uko egiteko eskubidea.
- g) Informazio nahikoa, egiazkoa eta erraz ulertzekoa izateko eskubidea, proposatutako esku hartzeen, eskuragarri dauden zerbitzuen eta horietara sartzeko beharrezko betekizunen ingurukoa, baita norberaren espedientera edozein unetan sartzekoa ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoari jarraituz.
- h) Erreferentziazko profesional bat izendatuta edukitzeko eskubidea, koherentzia, integraltasuna eta jarraitutasuna emango diona esku hartze prozesuari.
- i) Arrazoizko epean norberak ostatu zerbitzuan dituen beharren ebaluazioa edo diagnosia, eta, zentzuzko epean, arreta pertsonalizaturako plan bat izatea, eta hura egiten parte hartzea.
- j) Banaka edo taldean norbera ukitzen duten erabakietan eta zerbitzuen funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea eta informatzeko, iradokizunak egiteko eta kexak jartzeko bideetara sartzeko eskubidea, norberaren eskubideak egiaz erabiltzeko eta defendatzeko aukera emango dutenetara.
- k) Zerbitzuaren modalitatea libreki hautatzeko eskubidea (tutoretzapeko apartamentua edo komunitateko etxebizitza), norberarentzat egokiena dena, eskuragarritasunaren arabera, esleitutako erreferentziazko profesionalaren orientazio eta gomendio teknikoei jarraituz.
- l) Arreta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean jasotzeko eskubidea, norberaren aukeraren arabera.
- m) Prestazioen eta zerbitzuen kalitaterako eskubidea, arauz modalitate bakoitzarentzat xedatutako betekizun materialen, funtzionalen eta langileen arlokoen arabera.

- n) 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan aitortutako beste eskubideak

10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileen eskubideak 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, jasotakoak izango dira. Zehazki:

- a) Ostatu zerbitzuan ezarritako arauak, betekizunak, baldintzak eta prozedurak betetzea eta arreta plan pertsonalizatuan jasotako orientabideak errespetatzea.
- b) Erreferentziazko profesionalari norberaren inguruabar pertsonalen, familiarren, ekonomikoen eta horien aldaketen inguruko beharrezko eta egiazko informazioa ematea.
- c) Ostatu zerbitzua bideratzea emandakoan zuen helburura.
- d) Ostatu zerbitzua finantzatzen laguntzea.
- e) Ezagutzea eta betetzea antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duten manuen edukia eta ostatu zerbitzuko elkarbizitzarako arauak.
- f) Errespetatzea gainerako erabiltzaileei eta profesionali aitortutako eskubideak, eta horiek ez baztertzea.
- g) Ondasun higigarriak eta instalazioak era egokian erabiltzea eta errespetatzea.
- h) 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan aitortutako beste betebeharrak

11. artikulua. Profesionalen eskubideak

Profesionalen eskubideak, eskubide konstituzionalez eta legez aitortutakoez eta lan arloko legediak aitortutakoez gain, 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, jasotakoak izango dira.

12. artikulua. Profesionalen betebeharrak

Profesionalek beren jardunean laneko araudiak eta beren ofizioari aplikagarria zaion legediak ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, eta beren esku hartzea egokitu beharko diote, hala badagokio, beren diziplinako kode deontologikoak jasotako jarraibideei. Horrez gain, 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan xedatutakoa, bete beharko dute.

HIRUGARREN TITULUA: SARTZEKO, EGOTEKO ETA BAJA EMATEKO PROZEDURA

13. artikulua. Zerbitzura sartzeko eskaera

Zerbitzura sartzeko, interesdunak aurretik eskaera aurkeztu beharko du, inprimaki normalizatuan egindakoa, organo eskudunari zuzendutakoa, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan edo 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoan, aurreikusitako edozein modutan.

Prozesuaren edozein unetan, interesdunak atzera egin dezake eta, hori egin nahi izatekotan, idatziz egin beharko du. Hori gertatuz gero, espedientea artxibatuko da.

Eskaerarekin batera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko da. Aurkeztutako dokumentazioa ez balego osorik edo ez balitz zuzena, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean aurkeztu dezan beharrezko dokumentazioa edo zuzendu ditzan hautemandako akatsak. Jakinaraziko zaio hori egiten ez badu, ulertuko dela eskaerari uko egingo diola.

Udalak interesdunei ez die eskatuko aurkezteko Udalak berak lortu dezakeen informazioa. Eskatzaileak, eskaerarekin batera, familia unitatearen kide guztien baimena aurkeztuko du datuak kontsultatu edota egiaztatzeko, guzti hau dokumentu normalizatuen bidez.

Datuak faltsutzen edo ezkututzen badira, zerbitzuaren eskatzaile izaera galduko da, eta hainbat erantzukizun ekar ditzake horrek.

14. artikulua. Instrukzioa

Espedientearen instrukzioa Getxoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egingo du. Aurkeztutako eskaeren edukia egiaztatuko du, eta, horretarako, behar beste datu eta txosten eskatu ahal izango dizkio beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuei, baita eskatzaileari berari ere.

15. artikulua. Ebazpena

Behin eskaera aztertu eta baloratu denean, erreferentziazko gizarte langileak nahitaezko txosten sozial bat egingo du, eta bertan adieraziko du ostatu zerbitzua baliabide egokia den eta zein modalitate gomendatzen den.

Organo eskudunari dagokio onartu izanaren edo onartu ez izanaren ebazpena ematea, dagokion eskaera aurkeztu eta bi hilabeteko epean, gehienez ere. Epe hori eten egingo da eskaerak zuzendu behar direnean, jakinarazpenaren eta egin beharrekoak egiten diren tartean, edo, bestela, emandako epean. 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 22. artikuluan aurreikusitako gainerako kasuetan ere gauza bera gertatuko da.

Behin aurreikusitako epea igaro denean berariazko ebazpen bat eman gabe, nahiz eta ebazpena eman behar duen, ulertuko da eskaera ezetsi egin dela.

Honako hauek jaso beharko ditu baieztatu ebazpenak:

- Zerbitzua esleitu izana, zehaztuta zein den ostatu zerbitzuaren modalitatea eta onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa.

Ezezko ebazpenean zergatiak agertu beharko dira, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Sartzeko betekizunak betetzen ez badira.
- Eskatzaileak berak eta/edo senideen laguntzaz eta/edo beste baliabide pertsonal batzuen bidez behar bezala ase baditzakete eskaera oinarritu zuten beharrak.
- Beste administrazio publiko baten eskuduntza bada.
- Zerbitzua ez bada egokia eskatzailearen beharretarako.
- Zerbitzuak arrisku fisikoa eta/edo psikikoa ekar badiezaioke eskatzaileari, beste erabiltzaile batzuei edo zerbitzua eman behar duten langileei.
- Behar bezala arrazoitutako beste kausa batzuk.

16. artikulua. Erreklamazio prozedura

Ebazpena legez eskatutako epeetan eta bertan jasotako formalitateei jarraituz jakinaraziko da, eta organo eskudunari haren kontrako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, edo ebazpena zuzenean administrazioarekiko auzien ordena jurisdikzionaletan aurkaratu ahal izango da, legez ezarritako epe eta baldintzei jarraituz.

17. artikulua. Zerbitzuan onartzea eta egokitzeko aldia

Behin plaza esleitu denean, zerbitzura hilabeteko epean sartuko da, gehienez ere.

Hiru hilabeteko epea ezarriko da, erabiltzailea sartu zen egunetik zenbatzen hasita, zerbitzuaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko.

Egokitze aldia igaro ondoren, erabiltzaileak ostatu zerbitzuaren erabiltzaile izaera lortuko du edo bertatik baja hartuko du, egokitu ez delako.

18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Erreferentziarako gizarte langileak etengabeko jarraipena egingo du, aztertze zerbitzua nola egokitzen den erabiltzaileen beharretara, eta horiekin batera ebaluatuko du proposatutako helburuen lorpen maila, eta laguntzen egokitasuna eta nahikotasuna, eta beharrezko aldaketak proposatuko ditu.

Ostatu zerbitzuaren kudeaketa eta funtzionamendu egokia zerbitzuaren arduradunak egingo du.

Batzorde tekniko bat sortuko da zerbitzuei jarraipena egiteko. Tutoretzapeko apartamentuen kasuan, oinarrizko koordinatzaileek eta tutoretzapeko apartamentuen arduradunak osatuko dute. Komunitateko etxebizitzien kasuan, jarraipen batzorde bat eratuko da, eta bertan egongo dira udal egoitzaren bi ordezkari eta Gizarte Zerbitzuen Saileko bi ordezkari.

Jarraipen batzorde bakoitza urtean birritan bilduko da, gutxienez, zerbitzuak egikaritzeari buruzko gai guztien inguruan hausnartzeko.

19. artikulua. Zerbitzua etetea

Artikulu honetan jasota bezala, erabiltzailea zerbitzuan ez badago, zerbitzua aldi baterako etengo da, eta plaza erreserbatuko da. Erabiltzaileak nahitaez ordaindu beharko du ezarritako ekarpen ekonomikoaren % 100. Honako hauek izan daitezke:

- 1) Ostatuan nahita ez egotea. Nahita ez egoteko gehienezko aldia 45 egunean ezarri da urteko, jarraian edo ez jarraian.
- 2) Ostatuan ez egotea ospitaleratu egin dutelako. Ospitaleratu izanagatik ez egoteko gehienezko aldia 3 hilabetez ezarri da, eta luzatu egin daiteke, justifikatutako balorazio tekniko baten bidez.
- 3) Behar bezala justifikatutako beste arrazoi batzuegatik ez egotea.

20. artikulua. Zerbitzua amaitzea

Honako egoeretan atera ahal izango da zerbitzutik eta galdu ahal izango da erabiltzaile izaera:

- a) Borondatez uko egitea. Uko egitea ez da jakintzat emango. Aitzitik, berariaz eta zalantzarik gabe azaldu behar da.
- b) Egokitzapen aldia ez gainditzea.
- c) Sartzeko baldintzaren bat ez betetzea.
- d) Ostatutik kanpo egoteagatik, behar bezala justifikatu gabe, urtean 45 egunez, jarraian izan ala ez izan.
- e) Bigarren mailako arretako ostatu zerbitzu batean sartu izana.
- f) Heriotzagatik.

LAUGARREN TITULUA: BARRUKO FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

21. artikulua. Funtzionamendu arau orokorrak

Zerbitzuaren erabiltzaileek egunerokotasunean funtzionamenduaren barne araubidean ezarritako arauari jarraituko diete.

Erregelamendua indarrean sartu eta urtebetean, Getxoko Udalak funtzionamenduaren barne araubidea egingo eta onartuko du, erabiltzaileen partaidetzarekin.

22. artikulua. Erabiltzaileen partaidetza bideak

Zerbitzuaren modalitate bakoitzak erreklamazio liburu bat eta iradokizun postontzi bat izango ditu, erabiltzaileentzako irisgarriak izango direnak, zerbitzuen funtzionamenduari edo hobekuntzei buruzko proposamenak edo erreklamazioak egiteko.

Erabiltzaileak parte hartu ahal izango du ostatu zerbitzuaren antolakuntzan eta hura hobetzean, horretarako egindako bileren bidez, egingo diren asebetetze inkestetako ekarpenen bidez, edo Getxoko Udalean ezarritako Oharrak, Kexak eta Iradokizunak sistema erabilia.

23. artikulua. Zehapen araubidea

Erabiltzaileek ostatu zerbitzuan indarrean dauden elkarbizitza eta funtzionamendu arauak jarraitu beharko diete.

Zehapenak ezarriko zaizkie beren jarrerarekin nahita zerbitzuko elkarbizitza oztopatzen duten erabiltzaileei, gainerako erabiltzaileen eta langileen eskubideak errespetatzen ez dituztenei eta instalazioak gaizki erabiltzen dituztenei.

Oro har, erregelamendu honetako edozein arau ez betetzea bai eta funtzionamenduko barruko erregimenen araudia arau haustetzat joko da, eta horiek arintzat, larritzat edo oso larritzat jo ahal izango dira.

Arau-hauste arinak

- a) Zerbitzuen erabiltzaileen edo prestazio ekonomikoen onuradunen aldetik, ezarritako arau, eskakizun eta prozedurak ez betetzea, bai eta gizarte-zerbitzuen programa eta jarraibideak ez jarraitzea, halako eran, non gizarte esku-hartzearen xedea desitxuratzen den.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, zerbitzuko edo zentroko pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariei zor zaien begiruneari arinki huts egitea.
- c) Instalazioak modu desegokian erabiltzea edo zerbitzuko jarduerak asaldatzea, bizikidetzako eta elkarrekiko errespetuko arauak aldaraziz eta bizikidetzari kalte eraginez.
- d) Barne-erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak ez betetzea, betetze hori, bere izatasunagatik eta larritasunagatik, larritzat edo oso larritzat tipifikatua izan ez denean.

Arau-hauste larriak.

- a) Jasotako zerbitzuaren erabilera eragin zuen xedeaz beste baterako bideratzea.
- b) Zuzendaritzako arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei eta bisitariari zor zaien begiruneari larriki huts egitea.
- c) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan kalte larria edo zentroko zerbitzuen ohiko garapenari edo bizikidetzari galera nabariak eragitea.
- d) Barne-araubideko kasuan kasuko erregelamenduan jasotzen diren betebeharrak larriki ez betetzea, ez-betetze hori oso larria ez denean.
- e) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

Arau-hauste oso larriak.

- a).Behin baino gehiagotan zerbitzuaren ordainketan justifikazio gabe luzatzea.
- b) Zentroko arduradunari, pertsonaleko kideei, erabiltzaileei edo bisitariari eraso egitea edo tratatu txarrak ematea.
- c) Zentroaren, pertsonalaren, erabiltzaileen edo bisitarien ondasunak ostea.
- d) Zentroko ondasun eta ekipamenduetan edo zerbitzuen ohiko garapenean edo zentroko bizikidetzan kalte edo galera oso larriak eragitea.
- e) Arau-hauste larrietan berrerortzea.

Arau-haustea behin baino gehiagotan egin dela edo berrerortzea egon dela esango da arau-haustea egin duenak bi urteko epe barruan izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egin duenean, eta ebazpen irmo baten bidez aitortua izan denean.

Zehapenak.

- a) Arau-hauste arinak idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 200 eurorainoko isun baten bidez zehatuko dira.
- b) Arau-hauste larriak ahozko eta idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 201 eurotik 600 eurora bitarteko isun baten bidez zehatuko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak ahozko eta idatzizko zentzarazpen baten bidez eta 601 eurotik 1.500 eurora bitarteko isun baten bidez zehatuko dira. Era berean, eskubidearen etendura ere pilatu ahal izango da sei hilabeteko aldi batean.

Ezartzea bidezko den zehapenak zehazteko eta, behar izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zehazpenen iraupena graduatzeko, zehapenen beharrezko egokitzapena eta proportzionaltasuna zaindu beharko dira, arau-haustea eratzen duen egitearen larritasunaren aldean.

Arau-hauste oso larriak lau urtera preskribituko dira; larriak, hiru urtera, eta arinak, urte batera, arau-haustea egin den datatik kontatzen hasita.

BOSGARREN TITULUA: ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. artikulua. Ostatu zerbitzuaren prezioa

Prezioa adineko pertsonentzako ostatu zerbitzua emateko ebazpenean zehaztuko da, horretarako zerbitzua emateko tasa edo prezio publikoa arautzen duen udal ordenantza fiskalean ezarritako baldintzei jarraituz.

Urtean-urtean, hala badagokio, organo eskudunak prezio horiek eguneratuko ditu, ordenantza fiskal horretan xedatutakoari jarraituz.

25. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuari egindako ekarpena

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostu osoa edo haren zati bat ordaindu beharko du, eta hori kalkulatzeko kontuan hartuko da erabiltzailearen gaitasun eta etekin ekonomikoa. Gaitasun hori zehazteko, kontuan hartuko da ordenantza fiskalean xedatutakoa.

Zerbitzuaren onuradunek eta, hala badagokio, legezko ordezkariak, nahitaez jakinarazi beharko diote Udalari errentan edo ondarean aldaketaren bat egon dela, hura gertatu eta 15 eguneko aldian, baita ekarpen ekonomikoa ezartzean eragina izan dezaketen beste edozein inguruabar ere. Bertatik eratorritako aldaketa ekonomikoak hurrengo hilabetean izango du eragina.

Erabiltzailearen egoera ekonomikoa bi urtean behin berrikusiko da, ofizioz, edo hura aldatzea ekarri ahal iznago duen errentaren edo ondarearen aldaketaren bat gertatzen denean.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregelamendu honek eragindako aldaketek, aurreko araudiagatik eskuratutako eskubideak kaltetzen dituztenek, ez dute atzeraeraginik izango.

INDARGABETZEN DUEN XEDAPENA

Indarrrik gabe geratu da 2006ko azaroaren 24ko osoko bilkuran onartutako tutoretzapeko apartamentuen araudia, 2006ko abenduaren 22ko BAO-n argitaratutakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Ordezko araubidea.

Erregelamendu honek aurreikusten ez duenean, administrazio prozedurari dagokionez aplikagarria izango da 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenan xedatutakoa; eta, gizarte zerbitzuen alorrari dagokionez, aplikagarria izango da Eusko Legebiltzarraren 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, xedatutakoa.

Bigarrena.- Erregelamendua indarrean sartzea

Erregelamendu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hamabost egunean jarriko da indarrean.

Vº Bº

ELENA CORIA YANGUAS

Gizarte Zerbitzuetako Arduradun Politikoa
Responsable político de Servicios Sociales

MIKEL KEREXETA KORTABARRIA

Gizarte Zerbitzuetako Arduradun Teknikoa
Responsable técnico de Servicios Sociales